



Osteguna, uztailaren 19a

9:00

Harrera eta akreditazioak ematea

9:30

Ongietorria eta Biltzarraren aurkezpena

I. BLOKEA:

ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOEN ROLA LANA AKTIBATZEKO

Enplegu Zerbitzu Publikoaren ikuspegiari, rolari eta bezeroekiko (enpresak eta enplegua eskatzen duten pertsonak) duen artikulazioari buruz eztabaidatzea da lehen bloke honen helburua, erantzun beharko dioten arau-jokalekua eta jokaleku sozioekonomikoa kontuan izanda betiere.

9:45

Alemaniarren adibidea:

Enplegu-zerbitzu publikoa pertsonetan eta zerbitzuetan ardaztua

Osoko Bilkura:

Wolfgang Müller, Alemaniako Enplegu Agentzia Federalaren Europako Ordezkaritzaren zuzendaria

Ponentzia ingelesez emango da 

Langabeziaren prebentzioan biltzen ditu bere ahaleginak Alemaniako Enplegu Zerbitzuak, enpresek eskaturiko lan-gaikuntzaren egokitzapena abiapuntutzat hartuta betiere. Wolfgang Müllerrek Alemaniako enplegu-sistemaren konfigurazioaren zutabeak azalduko ditu, dimentsio hirukoitz batetik: zerbitzuen zorroan (argi berezia ipiniz enpresentzako zerbitzuen gainean), enplegu-bulegoen eredua lehentasunezko arreta-puntu gisa, eta zerbitzuaren ardura duten funtsezko profesionalen profila eta garapena (orientatzaileak, enpresa-agentreak, eta abar).

10:30

Biltzarraren inaugurazio ofiziala

Patxi López, *Lehendakaria*

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua

11:05

Etenaldia-kafea



Osteguna, uztailaren 19a

I. BLOKEA:

ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOEN ROLA LANA AKTIBATZEKO

Enplegu Zerbitzu Publikoaren ikuspegiari, rolari eta bezeroekiko (enpresak eta enplegua eskatzen duten pertsonak) duen artikulazioari buruz eztabaidatzea da lehen bloke honen helburua, erantzun beharko dioten arau-jokalekua eta jokaleku sozioekonomikoa kontuan izanda betiere.

11:30

Enplegu Zerbitzu Publikoa: enpresentzako zerbitzuen ikuspegi baterantz

Mahai-ingurua

Esther Sánchez i Torres, *Enplegu eta Lan Harremanetako idazkari eta Servei d'Ocupació de Catalunya erakundeko zuzendaria*

Emilio Ruiz-Roso, *Leroy Merlín Espainiaren Giza Baliabideak Kudeatzeko zuzendaria*
Mariano Cortés, *Lanbideren Laneratzea Aktibatzeako zuzendaria*

Moderatzailea: **María Ángeles Sopena**, *Kantabriako Enplegu Zerbitzuaren zuzendaria*

Lanbide eta Servei d'Ocupació de Catalunya erakundea enpresentzako zerbitzuen zorro bat eratzeke eta abiarazteko egiten ari diren aurrerapenak aztertuko dituzte. Bestalde, enpresek enplegu-zerbitzu publikoei buruz duten ikuskera izango dugu, dagozkien premiei erantzuteko kontuan izan beharko dituzten funtsezko elementuak identifikatuta.

12:45

Pertsonentzako arreta: Laneratzea aktibatzeke eredu

Mahai-ingurua

Dolors Poblet, *Manpower Enplegu Agentzia adarraren zuzendari nagusia*

Juan Ibarretxe, *Peñascal Kooperatibaren gerentea*

Javier Ramos, *Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusia*

Moderatzailea: **Nafarroako Enplegu Zerbitzua**

Enplegu Zerbitzu Publikoaren enplegua eskatzen duten pertsonen arretarako ereduaren eta enplegu-agentzia sektoreko enpresa espezializatuen ikuskera uztartuko ditu mahai-inguru honek. Laneratzeke zailtasun bereziak dituzten pertsonen eman beharreko arretari buruzko bere ikuspuntua eskainiko digu Peñascal Kooperatibak, eta Manpower taldeak, aldiz, kasuistika hori ez duten baina erantzun beharreko premiak ere badituzten kolektiboari eman beharreko arretatik ekinga osatuko du ikuspegi hori. Batzuen eta besteen arteko interes-puntuak eta baterako jardunguneak aurkitzen saiatuko da eztabaida.

14:00

Bazkaria UPV/EHUren Auditoriumaren hall nagusian

Osteguna, uztailaren 19a

II. BLOKEA

ENPLEGUA ETA ENPLEGAGARRITASUNA SUSTATZEKO TRESNA NAGUSIAK

Bigarren bloke honen helburua enplegua eta pertsonen enplegagarritasuna sustatzeko erreminta nagusiak (azterketa, informazioa, orientazioa, prestakuntza) aztertzea da. Europako eskualdeetan edo nazioarteko beste zenbaitetan izandako arrakasta-kasuak azalduko ditu lehenengo hizlariak. Lehenengo mahai-inguruak merkatua aztertzeke eta kualifikazio- eta gaitasun-premiak identifikatzeko ereduen hobekuntza nola ari diren aztertzen jorratuko du, eskaintza eta eskaria egokitzeke sistema egonkorrago bat bermatzeko.

Bigarren bloke honek uztailaren 20an izango du jarraipena Prestakuntzaren inguruan (ikus xehetasuna ondoren)

15:00

Eskariari erantzunez:

Lan-merkatua eta prestakuntza-premiak ikertzearen garrantzia

Osoko Bilkura

Eamon Davern, *Erresuma Batuko Enplegu eta Pentsio Departamentuaren Nazioarteko Unitatearen Nazioarteko Estrategiako zuzendaria*

Erresuma Batuko Enplegu eta Pentsio Departamentuaren (DEP) Nazioarteko Unitatearen Nazioarteko Estrategiako lantaldea zuzentzen du Eamon Davernek. Erresuma Batuean ordezkarria da Enplegu Zerbitzu Publikoen Europar Sarean (EURES), eta emaitzak neurtzeko politiken garapenaren buru izan da, horien artean Enplegu Zerbitzuetako bezeroen profilen zerbitzu- eta azterketa-helburuen ezarpena biltzen delarik.

Ponentzia ingelesez emango da



16:00

Merkatu-azterketa eta enplegu-haztegi berriak. Arrakastarako ezinbesteko erreminta

Mahai-ingurua

Gregorio de Castro, *Europako Batzordeko Enpresen Zuzendaritza Nagusiko projektuburua*

Euken Sesé, *Donostiako Sustapeneko zuzendaria*

Ana Andueza, *Deloitte-aren Sektore Publikoko Aholkularitzako bazkide eta EAEko lan-merkatuan Adituen Mahai bat sortzeko proiektuaren arduraduna: Energia Berriztagarrien proiektu pilotua*

Moderatzailea: **Jose Luis Alvarez**, *Asturiasko Printzerriko Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendaria*

Lanbide enpresen premiak ulertzeko eta erabakiak hartzeko eta prestakuntza-baliabideak planifikatzeko, eta abar, funtsezko erreminta gisa merkatuaren azterketaren alde egindako apustua aurkezteko aukera gisa planteatzen dugu mahai hau. Deloitte, Lanbide zeregin honetan aholkatu duen aholkulari gisa, eta proiektuan parte hartu duten enpresek lan-eredu horiek duten potentziala aurkeztuko dute.

Europako Batzordearen Enplegu Zuzendaritzako Europako Sarea koordinatzeaz arduratzen den Unitatearen ikuspegia izango dugu, eta Enplegu Zerbitzu Publikoek eremu horretan aurre egin behar dieten erronken eta prospektiba-ereduen konparaketa bat aztertuko da, baita EBren ekintza-ildo nagusiak ere. Donostiako Sustapenak, Toki Garapeneko Agentzia denez, enplegu-zerbitzu publikoen garapen-estrategiaren zati diren erakunde horien rola ulertzea eta aurreratzea ahalbidetuko du, pribilegiozko posizioa eta lurraldetik hurbilekoa baitu.

17:30

Jardunaldiaren ondorioak eta itxiera

Aztertutako gai nagusien azalpen laburra

Ostirala, uztailaren 20a



II. BLOKEA

ENPLEGUA ETA ENPLEGAGARRITASUNA SUSTATZEKO TRESNA NAGUSIAK

Bigarren bloke honen helburua enplegua eta pertsonen enplegagarritasuna sustatzeko erreminta nagusiak (azterketa, informazioa, orientazioa, prestakuntza) aztertzea da.

9:00

Gaitasunak, Prestakuntza eta Enplegagarritasuna

Osoko Bilkura

Vanessa Fuertes, *Employment Research Institute (Edinburgh Napier University)* erakundearen ikertzaile elkartua

Ponentzia ingelesez emango da 

Edinburgoko Napier Unibertsitaeko Enplegurako Ikerketa Institutuari loturikoa, zeregin garrantzitsua izan du Vanessa Fuertesek ikerketa-proiektu handien egikaritzapenean Eskoziako Gobernurako, Europako Batzorderako, Joseph Rowntree Fundaziorako, Edinburgoko Merkataritza Ganberarako, eta Ipar Irlandako Enpresa, Merkataritza eta Inbertsioetako Departamenturako, besteak beste. Gaur egun proiektu baten garapenean sartuta dago Europako Batzordearen Zazpigarren Esparru Programan enpleguaren integrazioa eta tokian tokiko beste esparru batzuk aztertzeke, gizarte-kohesioa lortzeko helburuarekin betiere. Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Soziologia eta Zientzia Politiketako lizentziaduna da Vanessa, eta Gizarte Ikerketako Master bat ere egin du.

10:00

Enplegua eta Prestakuntza binomioa: ba al da alternatibarik?

Mahai-ingurua

María Eugenia Pérez, *Galiziako Xuntako Hezkuntza Saileko Lanbide-Orientaziorako eta Enpresekiko Harremanetarako Zuzendariorde Orokorra*

Joxean Egaña, *IMH Makina Erremintaren Institutuaren zuzendari gerentea*

Zigor Ezpeleta, *MCC Mondragon Corporación Cooperativa sozietatearen Harreman Soziolaboraleko arduraduna*

Moderatzailea: **Jorge Lorenzo Escario**, *Aragoiko Enplegu Institutuaren zuzendari gerentea*

Txandakako prestakuntzaren potentzialari buruzkoa izango da mahai-ingurua. IMH eta MCC erakundeek beren ereduak aurkeztuko dituzte prestakuntza dualaren hurbileko figura horien inguruan, Europar arrakasta ugari lortzen ari direnen inguruan. Era berean, Galiziako Xuntaren Consellería de Educación e Ordenación Universitaria erakundeak bere ikuspuntua azalduko du, lanbide-kualifikazioak garatzeko egiten ari diren lana aztertgai hartuta.

11:15

Etenaldia-kafea

Ostirala, uztailaren 20a



III. BLOKEA

KONPROMISO PARTEKATUA ETA LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA: GIZARTE HELDU BATERANTZ

Enplegu-zerbitzuen
plangintzako, ezarpeneko
eta finantzaketako
lankidetzak publiko-privatuko
formula berrien gain ipiniko
du argia azken bloke honek.
Finantza-presioa eta
zerbitzuak ematean
bikaintasunaren bilaketa
nagusi diren testuinguruan,
sistema berak eskatzen
duen malgutasuna
eskaintzen dute
partenariotzako eredu
horiek, enplegu-zerbitzuei
kasu bakoitzean bidaide
egokiena hautatzeko aukera
emanez.

11:45

Mahai-ingurua

Rebecca Uhart, INGEUSen Nazioarteko Harremanen gerentea

Iñaki Ortega, Madrid Emprrende Garapen Ekonomikoko Agentziaren gerentea

Itziar Sabas, Uvesco Taldearen Giza Baliabideetako arduraduna

Eduardo Marín, Resultado Grupo de Comunicación taldearen gerentea

Moderatzailea: Lidia P. Pereira Saavedra, Kanarietako Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusia

INGEUSEk, Erresuma Batuko enplegu-zerbitzu publikoaren bazkide-laguntzaile nagusietako bat denez, zerbitzuak esternalizatzeko britainiar ereduak aurkeztuko du. Madrid Emprrende agentziak Madrilgo Erkidegoko ekintzaileentzako zerbitzuaren inguruko lankidetzak publiko-privatua aurkeztuko du, agente ugari mobilizatzen dituen. Azkenik, Uvesco Taldea eta Resultado Grupo de Comunicación Taldea izango ditugu, eta ekimenen arrakastan izan duten esperientzia azalduko dute, enplegua aktibatzeke programetan arrisku-banaketa bat dakarten ekimenenena, horretan inplikaturiko alderdien elkarrekiko etekina maximizatuz (enpresa - enplegu-eskatzaila - enplegu-zerbitzua).

13:15

Biltzarraren ondorioak eta klausura

Gemma Zabaleta, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Galetako sailburua

Emanaldia eta Biltzarraren itxiera